



I. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA

Foru Enpresak eta Foru Erakundeak

Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea (GUFÉ)

2022ko eta 2023ko Enplegu Publikoaren Eskaintzari dagozkion Biltegiko Arduradunaren kategoriako hautapoben deialdia onesteari buruzkoa, Erabakia.

Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen Gobernu Batzordeak, 2025eko abenduaren 3an eginiko ohiko bileran (4/25 akta), besteak beste, honako erabaki hau onetsi zuen:

«*Lehenengoa:* Bat etorririk Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen 2022ko abenduaren 19ko eta 2023ko abenduaren 20ko enplegu publikoaren eskaintzekin eta 2025eko uztailaren 21eko aldaketa partzialarekin, eta behin 2025eko abenduaren 3ko Gobernu Batzordeak onetsirik, hautapoben deialdia egitea, eranskinetan zerrendatutako Biltegiko Arduradunen plazak betetzeko.

Bigarrena: Deialdi hori arautuko duten oinarri orokorrak (Oinarri orokorrak, eskabide-orriak eta erantzukizunpeko adierazpena ez dira erantsi. Errepikatutzat jotzen dira, 2022ko EPEari dagokion aldez aurreko iragarkian argitaratutakoen berdinak direlako (ekonomialari-kategoria)) eta espezifikoak onestea. Erabaki honi erantsi zaizkio, jasota gera daitezten.

Hirugarrena: Agindua ematea oinarriak argitara daitezten oso-osorik Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, laburturik Estatuko Aldizkari Ofizialean, eta GUFÉren iragarki-taulan zein web-orrian.

Laugarrena: GUFÉko gerentea gaitzea deialdi hau izapidetzeko beharrezkoak diren ebazpenak eman ditzan.»

Bilbon, 2025eko abenduaren 5ean.—GUFÉ-ren gerentea, David Latxaga Ugartemendia

**OINARRI ESPEZIFIKOAK
BILTEGIKO ARDURADUNA****1. Deialdian eskainitako plazak**

Deialdia egiten da oposizio-lehiaketa bidez betetzeko Biltegiako Arduradunen bi (2) plaza (C taldea, C2 titulazio-azpitaldea), honela banaturik:

- Txanda askea: bi (2) plaza; haietako bik (1) derrigorrezko B1B1 hizkuntza-eskakizuna dute, eta batek (1) derrigorrezkoa ez den B1B1 hizkuntza-eskakizuna du.

2. Titulazioa eta jatorriko plaza

Eskola-graduatuaren titulua, Lehen Mailako Lanbide Heziketakoa edo Bigarren Hezikuntzako graduatuarena edo baliokidea.

3. Hautaketa-prozedura

Izangaiak aukeratzeko prozedura oposizio-lehiaketa izango da.

3.1. Oposizio-fasea

Oposizioaldiak hiru (3) ariketa ditu: lehenengo biak (2) nahitaezkoak eta baztertzailak dira; hirugarrena nahitaezkoa eta baztertzaila izango da derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten plazetarako, eta borondatezkoa eta ez-baztertzaila izango da gainerako plazarako.

3.1.1. Lehenengo ariketa

Ariketa teorikoa izango da, eta, laurogeita hamar (90) minutuan, berrogeita hamar (50) galderako test bat egin beharko da, gehi erreserbako hamar (10) galdera. Galderak II. eranskineko gaitegian jasotzen diren gaiei buruzkoak izango dira, eta aukerako zenbait erantzun izango dituzte, baina bat baino ez da zuzena izango. Erantzun zuzenak puntu bat (1) balioko du, eta ez da punturik kenduko erantzun okerrengeatik, zuriz utzitakoengatik edo erantzun bi markatzeagatik.

3.1.2. Bigarren ariketa

Bigarren zatia praktikoa izango da: hirurogei (60) minutu izango dituzte izangaiek hogeita bost (25) galdera eta erreserbako bost (5) galdera erantzuteko. Galderak II. eranskineko gaitegiaren II. zatiko gaiei buruzkoak izango dira. Galdetegian aukerako zenbait erantzun izango dituzte, baina bat baino ez da zuzena izango. Erantzun zuzenak puntu bat (1) balioko du, eta ez da punturik kenduko erantzun okerrengeatik, zuriz utzitakoengatik edo erantzun bi markatzeagatik.

Bi ariketak egun berean egingo dira, bata bestearen ostean; epaimahaiak atsedenaletan eman ahal izango die izangaiei ariketen artean.

3.1.3. Hirugarren ariketa

Ariketa nahitaezkoa eta baztertzaila izango da derrigorrezko B1B1 hizkuntza-eskakizuna ezarrita duen lanpostuari lotutako plazara aurkezten diren hautagaienentzat. Ariketa horretan, B1B1 mailako euskararen ezagutza egiaztatu beharko dute.

Ariketa borondatezkoa eta ez-baztertzaila izango da derrigorrezkoa ez den B1B1 hizkuntza-eskakizuna ezarrita duen lanpostuari lotutako plazara aurkezten diren hautagaienentzat. Ariketa horretan, B1B1 mailako euskararen ezagutza egiaztatu beharko dute.

GUFEn edo Bizkaiko Foru Aldundian hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta dutenek ez dute berriro halakorik egiaztatu behar parte hartzen ari diren hautaketa-prozesuan, ez eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan eskakizuna egiaztaturik ageri direnek ere. Azken kasu horretan, parte-hartzaileak berariazko baimena emango dio GUFEn erregistro horretan egiaztapena egin dezan.

Hala eta guztiz ere, erregistro horretan ez dagoen baina azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuarekin bat baliozkotuta dagoen euskararen titulu edo egiaztagiri bat dutenek euskarako idatzizko ariketa egin baino lehen aurkeztu beharko dute titulu edo egiaztagiri



hori. Dekretu horren bitartez, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzen dira.

Hizkuntza-eskakizunak apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren babespean egiaztatu nahi dituzten izangaiek euskarako azterketa egin aurretik aurkeztu beharko dute ikasketen ziurtagiri egokia. Dekretu horren bidez, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzen dira eta euskara-maila salbuesten da hizkuntza-tituluen eta ziurtagiriaren bidez egiaztatzen.

3.2. *Lehiaketa*

Lehiaketan, oposizioa gainditu duten izangaiek aurkeztu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baliotzatuko dira. Horretarako, izangai bakoitzari merezimenduen baremoaren arabera (I. eranskina) dagozkion puntuak emango zaizkio.

4. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa

4.1. *Lehiaketa-fasea*

Merezimenduen baremoaren arabera (I. eranskina) emango dira puntuak, eta puntu horien batura izango da lehiaketa-fasearen kalifikazioa.

4.2. *Oposizio-fasea*

- a) Lehenengo eta bigarren ariketari zero (0) eta hamar (10) puntu arteko kalifikazioa emango zaie. Zati bietako emaitzen batuketa aritmetikoa eginez jarriko dira kalifikazioak. Ariketa gaindituko dute bi zatien artean hamar (10) puntu lortzen dituztenek, betiere zatietako bakoitzean gutxienez bi puntu eta erdi (2,5) lortzen badituzte.

Izangaiek gorde egingo dute hautaketa-prozesu honen lehenengo ariketan —teorikoa— lortutako kalifikazioa hurrengo deialdirako, oinarrietan hala ezartzen bada, eta, betiere, bi deialdietan txanda berean parte hartzen badute, hau da, txanda irekian edo barne-sustapenekoan.

- b) Hirugarren ariketan (euskarazkoan) «gai» / edo «ez gai» kalifikazioa emango zaie derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duen plaza lortu nahi dutenei.

Hizkuntza-eskakizuna derrigorrezko ez duen plazarako, eta jarraibide harturik Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretua, banaketa honi jarraituz kalifikatuko da, egiaztatutako mailaren arabera:

Hizkuntza-eskakizun simetrikoetarako:

— B1B1 hizkuntza-eskakizuna: 2,9 puntu

Hizkuntza-eskakizun asimetrikoetarako:

— A2B1 hizkuntza-eskakizuna: 2,03 puntu

Ezingo da eskuratu lortu nahi den lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna baino handiagoko baten puntuaziorik.

4.3. *Amaiera*

Izangaien azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntu guztien batura izango da.

5. Lan-poltsa

Bosgarren oinarrian ezarritakoaren arabera, lan-poltsa bat eratuko da gutxienez hautaketa-prozesuko lehenengo ariketaren lehenengo zatia gainditu duten pertsonekin. Lan-poltsa hori aldi baterako lanerako poltsei aplikatu beharreko irizpideak arautzen dituen unean uneko indarreko akordioan xedatutakoaren arabera osatu eta kudeatuko da.

**I. ERANSKINA****MEREZIMENDUEN BAREMOA**

1. Edozein administrazio publikotan Biltegiko Arduraduna kategorian (C taldea, C-2 titulazio-azpitaldea) egindako zerbitzuengatik: 0,150 puntu hileko edo zatiki bakoitzeko, eta gehienez ere bederatzi (9) puntu.

Ondorio horietarako, administrazio publikotzat joko dira arau hauetan jasotako en-teak: urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako En-plegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 2.1 eta 2.3 artikuluetan eta 4. artikulua a), b) eta c) letretan, eta Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 3.2 eta 3.4 artikuluetan. Orobat zenbatuko dira zu-zenbide pribatuko erakunde publikoetan egindako zerbitzuak, baina inola ere ez izaera publikoko beste erakunde batzuetan egindakoak, baldin eta enpresa, merkataritza-so-zietate edo elkarte nahiz korporazio publikoen forma juridikoa badute.

Egindako zerbitzuak hiletan zenbatuko dira. Ondorio horietarako, egindako zerbi-tzu-aldi guztietako egunak batuko dira eta batura zati hogeita hamar egingo da; emaitzan zatikirik ateratzen bada, hilabete oso gisa zenbatuko da.

Nolanahi ere, zerbitzua lanaldi partzalean edo murriztuan ematen denean ere, lanal-di osotzat hartuko da.

Era berean, egoki betetze aldera 21.1c) artikuluan xedatzen duena martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak, zeinaren bidez onesten baita emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legea-ren testu bategina, kontuan hartuko da, esperientzia profesionala baloratzeko, izangaia zenbat denbora egon den eszedentzia-egoeran senideak zaintzeagatik edo genero-in-darkeriagatik, zenbat denbora egotz dakiekeen lanaldi-murrizketei edo baimenei, baldin aurreikusitako xedetzat badute amatasuna edo aitatasuna babestea edota bizitza per-sonal, familiar eta laboralaren kontziliazio erantzukidea sostengatzea, eta enplegatuek zenbat denboratan erabili dituzten genero-indarkeriaren ondoriozko baimenak.

**II. ERANSKINA****GAI-ZERREDA****I. ZATIA****ZATI OROKORRA**

1. gaia. Espainiako 1978ko Konstituzioa. Bigarren kapitulua: eskubideak eta askatasunak. 1. atala. Oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak. 2. atala. Herritarren eskubideak eta eginbeharrak.

2. gaia. Euskal Herriaren Autonomia Estatutua. I. titulua: Euskal Herriaren eskumenak. II. titulua: Euskal Herriaren aginteak. Kapitulua: Eusko Legebiltzarra. II. kapitulua: Jaurlaritza eta Lehendakaria.

3. gaia. 3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko foru-erakundearen hautapen, antolaketa, erregimen eta funtzionamenduari buruzkoa. II. titulua: Bizkaiko Gobernu eta Administrazioez. I. kapitulua: Foru Aldundiaz eta III. titulua: Batzar Nagusien eta Foru Aldundiaren arteko harremanez.

4. gaia. 4/2001 Foru Araua, maiatzaren 30ekoa, Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen estatutuak aldarazteari buruzkoa. 1. artikulua: Izaera, sailkapena eta araubide juridikoa; 2. artikulua: Helburuak eta eginkizunak; 3. artikulua: Beharrezko egitura organikoa; 4. artikulua: Gobernu Batza; 5. artikulua: Gobernu Batzarraren eratxikipenak.

5. gaia. 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena. Atariko titulua. 4/2018 Legea, ekainaren 20koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa. Atariko titulua. II. titulua: Bizkaiko Lurralde Historikoko foru-sektore publikoan genero-ikuspegia txertatzeko neurriak (I-VIII kapituluak).

II. ZATIA**ZATI ESPEZIFIKOA**

6. gaia. Biltegia; kontzeptua, motak eta antolaketa.

7. gaia. Biltegitratzea: Produktuak sailkatzea, espazioak aprobetxatzea, biltegitratze-sistemak eta biltegitratze-bitartekoak eta -teknikak.

8. gaia. Salgaien babes fisikoa, materialen erabilera, zerbitzu-zirkuituak eta -ibilbideak.

9. gaia. Biltegitratzea: biltegiko makineria eta apalategietako biltegitratze-sistema.

10. gaia. Produktuak biltegitratzeko sailkapenak: elikagaien biltegiak eta garbikarien eta drogeria-produktuen biltegitratzea.

11. gaia. Produktuak biltegitratzeko sailkapenak: arropa biltegitratzea.

12. gaia. Biltegiak garbitzea: garbiketaren alderdi ekologikoak. Hondakinen tratamendua: biltegiak/tailerrak garbitzea.

13. gaia. Biltegiak garbitzea: garbiketaren alderdi ekologikoak. Hondakinen tratamendua: alderdi ekologikoak garbiketari. Hondakinak ezabatzea.

14. gaia. Biltegiak eragiketarako: sarrera eta irteerako fluxuak eta eskarien kudeaketa. Salgaiak jasotzea, helmuga eta atzera botatzea.

15. gaia. Biltegiak eragiketarako: kodetzea eta banaketa. Salgaien hornidura eta lokalizazio-sistemak.

16. gaia. Biltegiaren kudeaketa: biltegiaren kudeaketa, biltegiak kudeatzeko sistema eta antolaketa.

17. gaia. Biltegiaren kudeaketa: Stocken kudeaketa, biltegien kontrola. Kontrolerako teknologiak eta aldagaiak, autokontrolerako sistemak eta hausturen kontrola.



18. gaia. Administrazio-kudeaketak: dokumentazioa, eskariak, garraio-agiria, faktura... eta salgaien erregistroa. Inbentarioa.

19. gaia. Biltegiko antolaketa- eta kalitate-metodoak: 5 Sak. Biltegiko antolaketa- eta kalitate-metodoak: 9 Sak.

20. gaia. Biltegiko arduradunaren eginkizunen lan-arrisku espezifikoak.